BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1166

AGINDUA, 2013ko otsailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014 ikasturtean, Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileei laguntza bat emateko Aukeratze Batzordearen osaera izendatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez dirulaguntza bat deitu zen, Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileentzat. Aginduak, 7. artikuluan hauxe xedatzen du:

1.– Aukeratze-batzorde batek ebaluatuko ditu eskaerak eta erabakiko du nori esleitu laguntza. Kide hauek osatuko dute batzorde hori.

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak. Batzordeburua izango da.

b) Clare Hall-eko Fellowship Committee-ko presidenteak.

c) Bi aditu akademikoak, gehienez ere, Cambridge-ko Unibertsitatekoa bata eta Euskal Autonomia Erkidegokoa bestea, akordio honetako diziplina nabarmenetan esperientzia zabala izango dutenak, Clare Hall-eko Fellowship Committee-ko presidenteak eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak hurrenez hurren aukeratuak. Hautagaientzat espezialitate asko biltzen badira, alderdiek beste aditu bat proposa dezakete.

Horren arabera

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Irakasle hauek izendatzea, 2013-2014 ikasturtean Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileei dirulaguntza bat emateko Aukeratze Batzordeko kide gisa:

– Itziar Alkora Idiaquez.

– Sir Martin Harris.

– Javier Fernández Sebastián.

– Jonathon Pines.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da Agindu hau indarrean.

3. artikulua.– Aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, hilabeteko epea; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.